



Astronomia Saila 2012ko Apirilako Efemerideak

BEHATZEKO PROPOSAMENAK

- Begi hutsez:

Hilaren 4an, 15:00etan, Delta Cephei izar aldakorraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,37 egunean behin. Hilaren 10ean, 15ean, 20an eta 26an izango dira beste maximoak.

Hilaren 3an, Eta Aquilae zefeida-motako izar aldakorraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Hilaren 11n, 18an eta 25ean izango dira beste maximoak.

Hilaren 10ean, European, Lurraren Eguzkiarekiko orientazioa egokia da gaueko lehen orduetan mendebaldean argi zodiakala ikusteko. Oraingoan, Taurus eta Gemini konstelazioak estaltzen ditu Artizarra oinarrian dela.

Hilaren 2rik 4ra, Artizarra ikusi ahal izango da Pleiadeen ondoan.

Hilaren 22an, arratsaldeko azken orduan, oso Ilgora fin bat ikusi ahal izango da Jupiter planetaren ondoan, mendebaldeko horizontearen gainean.

Hilaren 24an eta 25ean, arratsaldearen bukaeran, Ilgora eta haren argi hausgara ikusi ahal izango dira Artizarraren ondoan.

- Teleskopioarekin:

Artizarraren fase bat ikusi ahal izango da, gainazalaren zati baino ez baitu argizatua.

Hilaren 25ean, 20:30ean, Ilargiak, (% 17 baino ez du izango argizatua) Tauruseko Dzeta izarra, 3 magnitudekoa, ezkutatuko du. 21:13an agertuko da berriro.

ILARGIA APIRILEAN

(Gehitu bi ordu denbora ofiziala kalkulatzeko).

02 Gutxieneko librazioa longitudean ($l = -7,79^\circ$).

03 21:16an, konjuntzio geozentrikoan Marterekin $8,3^\circ$ -ra.

04 Gehienezko librazioa latitudean ($b = 6,67^\circ$).

06 19:20an, Ilbetea.

07 10:15ean, konjuntzio geozentrikoa Saturnorekin, $6,3^\circ$ -ra, eta Virgoko Spica izarrekin.

16:40an, perigeotik pasatuko da (Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena): 147.100.000 km.

10 00:50ean, goranzko nodotik pasatuko da.

06:12an, konjuntzio geozentrikoa Scorpius konstelazioko Antares izarrekin, $4,9^\circ$ -ra.

13 10:51n, Ilbehera.

14 Gehienezko librazioa longitudean ($l = 6,88^\circ$).

17 Gutxieneko librazioa latitudean ($b = -6,70^\circ$).

21 07:19an, Ilberria

22 14:10ean, apogeotik pasatuko da (Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena): 406.431 km (perigeoan baino 48.107 gehiago).

17:10ean, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin 2° -ra.

23 17:12an, konjuntzio geozentrikoan Pleiadeekin $3,6^\circ$ -ra.

24 03:41ean, beheranzko nodotik pasatuko da.

25 02:22an, konjuntzio geozentrikoan Artizarrarekin $5,7^\circ$ -ra

20:30ean, Taurusen Dzeta izarra ezkutatuko da.

29 09:58an, Ilgora.

30 Gutxieneko librazioa longitudean ($l = -8,01^\circ$). Latitudeko gehienezko librazioa ($b = 6,78^\circ$) hurrengo egunean da. Bien bateratzea dela eta, Krisien itsasoa ekialdeko linboan ikusiko da.

PLANETAK APIRILEAN

IKUSGAIK

GOIZEZ	ARRATSALDEZ	GAUEZ
Merkurio (hilaren 20tik aurrera) Saturno	Artizarra Marte Jupiter (hilaren 25a baino lehen) Saturno	Marte Saturno



Astronomia Saila

2012ko Apirilako Efemerideak

Merkurio

Martxoaren 21ean igaro zen behe-konjuntziotik; beraz, apirileko lehen egunetan ezin izango zaio behatu. Hilaren 18an izango da elongaziorik handienez Eguzkitik mendebaldera, baina, ekliptikaren inklinazioa eta haren magnitude txikia direla eta, zaila izango da hari behatzea. Hilaren 20an, prismatikoekin, ekialdeko horizontearen gainean ikusi ahal izango da, Eguzkia atera baino ordu-erdi lehenago, baldin eta horizontea erabat garbi eta turbulenziaz gabe badago. Hilaren 30ean, Eguzkia baino 40 minutu lehenago aterako da. 0 h eta 1 h bitarteko igoera zuzena. -2° , -3° eta 0° bitarteko deklinazioa. Piscisen izango da hil osoan; amaieran, Cetusetik igaroko da, eta Piscisera itzuliko da berehala. Magnitudea handituko zaio; 1,4tik 0,4ra iritsiko da hilaren amaieran.

Artizarra

Taurus konstelazioan hasiko du ibilbidea, Pleiadeen kumulu irekitik igaroz. Eguzkia baino lau ordu geroago ezkutatu da hil osoan, eta gero eta distira handiagoa izango du, harik eta hilaren 30ean $-4,6$ ko magnitudea izatera iristen den arte. Argazki originalen zaleak saia daitezke argia planeta honek islatzen duela egitea lortzen. 30 handipeneko prismatikoak edo teleskopioa erabiliz, haren % 27ko ilgoraren silueta ikusi daiteke. Gaueko lehen orduetako ikuskizuna da hil honetan ere, beraren distira dela eta. 03 h eta 05 h bitarteko igoera zuzena. $+23^\circ$ eta $+27^\circ$ bitarteko deklinazioa. Hil osoan Taurusen izango da. $-4,4$ tik $-4,6$ ra handituko zaio magnitudea.

Hilaren 2tik 4ra, Pleiadeen ondoan ikusi ahal izango da.

Marte

La gau osoan egongo da ikusgai; mendebaldeko horizontetik 55° -ra baino gorago egongo da gauaren erdian. Hilaren 14an, eretrogradazio-begizta amaitu, eta ekliptikaren ekialderanzko bideari ekingo dio berriz. Igoera zuzena: 10:30 h. $+13^\circ$ eta $+11^\circ$ bitarteko deklinazioa. Hil osoan Leon izango da. Magnitudea $-0,7$ tik $-0,2$ ra aldatuko zaio.

Hilaren 3an, Ilargi ia betearen ondoan ikusi ahal izango da.

Jupiter

Hilaren 1ean, Eguzkia baino bi ordu eta erdi pasatxo geroago ezkutatu da; 30ean, hiru ordu-laurden geroago baino ez. Arratsaldean ikusgai den aldiaren amaieran gaude. 03 h-ko igoera zuzena. $+15^\circ$ eta $+17^\circ$ bitarteko deklinazioa. Ariesen izango da hil osoan. Magnitude bera izango du hil osoan: $-2,0$.

Saturno

Behatzeko kondizio ezin hobeak izango dira. Oposiziotik igaroko da hilaren 15ean. Horrek esan nahi du Eguzkia, Lurra eta Saturno lerrotatuta egongo direla egun horretan. Hilaren 1ean, Eguzkia sartu eta ordubetera aterako da; 30ean, ordu eta erdi lehenago. $0,2$ ko magnitudeko distira izatera iritsiko da. Lurretik 1.300 bat milioi km-ra dago; beraz, haren argiak 72 minutu inguru behar ditu guregana iristeko. 14 h-ko igoera zuzena. -07° -ko deklinazioa. Virgon izango da hil osoan, Spica izarretik gertu. Magnitudea $0,2$ tik $0,3$ ra aldatuko zaio.

Eraztunen inklinazioa $+14,2^\circ$ tik $+13,3^\circ$ -ra aldatuko da hilean zehar.

Hilaren 7an, 03:53an, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 15ean, 05:12an, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Hilaren 23an, 01:14an, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Urano

Ezin izango zaio behatu hil honetan ere. 00 h-ko igoera zuzena. $+1^\circ$ eta $+2^\circ$ bitarteko deklinazioa. Piscisen egongo da, eta $5,9$ ko magnitudea izango du.

Neptuno

Ezin izango zaio behatu maiatzera bitartean. 22 h-ko igoera zuzena. -11° -ko deklinazioa. Hil osoan Aquariusen. Magnitudea $8,0$ tik $7,9$ ra aldatuko zaio.

APIRILEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

(Gehitu bi ordu denbora ofiziala kalkulatzeko).



Astronomia Saila

2012ko Apirilako Efemerideak

01 Igandea. Eguedian, 2.456.020. egun juliotarra hasiko da; Kristo aurreko 4713ko urtarrilaren 1eko egueditik igaro diren egunak dira horiek. Kalkulu astronomikoak errazago egiteko erabiltzen da datu hori. XVII. mendeko eruditu frantses batek, Joseph Justus Scaliger-ek, zehaztu zuen data hori, garai hartako hiru ziklorik garrantzitsuenek bat egiten zutelako: 28 urteko eguzki-zikloa, 19 urteko ilargi-zikloa eta erromatar zergen 15 urteko zikloa, "erromatar indikzio" deiturikoa.

Egunak 12 ordu eta 48 minutuko iraupena du hilaren 1ean, eta 14 ordu eta 15 minutukoa hilaren 30ean. Hileko azken egunean, lehenean baino 50 minutu lehenago aterako da Eguzkia, eta 37 minutu geroago ezkutatuko da.

03 13:38an, Lurra Eguzkitik zehazki Unitate Astronomiko batera (149.597.870,691 km edo 8,316746 argi-minutu) igaroko da.

08 Pazko-igandea. Martxoaren 21aren ondorengo lehen Ilargi Betearen osteko aurreneko igandea izaten da beti. 2013an pazko-igandea martxoaren 31n izango da.

15 Pazko ortodoxoa (2012ko apirilaren 2a egutegi juliotarrean)

15 12:00etan, denboraren ekuazioa zero izango da.

18 Eguzkia, itxuraz, Aries konstelazioan sartuko da (28,99°).

19 Astrologiaren arabera, Eguzkia Taurusen sartuko da (30°).

22 Lirida izeneko izar iheskorren maximoa. Apirilaren 16tik 25era izango dira aktibo.

Donostia-San Sebastián: 43.3170° N, 1.9830° W

Data: 2012/04/15 20:00etan (Gehitu bi ordu denbora ofiziala kalkulatzeko)

